



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2019ko azaroaren 20a

38. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Foru Legea, zeinaren bidez kreditu berezi bat ematen baita Garesko Udalak sustaturiko “Gares Energia” trantsizio energetikorako proiektu aitzindariaren finantzatze-beharrizanei aurre egiteko. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Hezkuntzako kontseilaria premiatzen du Nafarroako ikastetxeetan erabiltzen ari diren testuen azterketa osoa egin dezan. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Elkarrizketa Sozialaren Kontseilua lehenbailehen dei dezan. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Jota Nafarroako ondare immaterialeko kultur intereseko ondasun deklara dezan. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua bil dezan, Enplegu Plana taxutzeko bide-orria lehenbailehen berrikusteko eta horri berriz ekiteko. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Noain-Iruñeko aireportuko hall nagusian Virgilio Leret zenaren omenezko eta errekonozimendurako monolito eta informazio-plaka bat para ditzan, Nafarroako Gobernuarekin lankidetzan. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plan bat taxutu dezan Nafarroako sare publiko ikastetxe guztiek izan dezaten estalgune bat beren patioetan. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

---

A saila:  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

**Foru Legea, zeinaren bidez kreditu berezi bat ematen baita Garesko Udalak sustaturiko “Gares Energia” trantsizio energetikorako proiektu aitzindariaren finantzatze-beharrizanei aurre egiteko.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2019ko azaroaren 14an egindako Osoko Bilkuran, honako foru lege hau onetsi zuen: “Foru Legea, zeinaren bidez kreditu berezi bat ematen baita Garesko Udalak sustaturiko ‘Gares Energia’ trantsizio energetikorako proiektu aitzindariaren finantzatze-beharrizanei aurre egiteko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2019ko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Foru Legea, zeinaren bidez kreditu berezi bat ematen baita Garesko Udalak sustaturiko “Gares Energia” trantsizio energetikorako proiektu aitzindariaren finantzatze-beharrizanei aurre egiteko**

**ATARIKOA**

Beharrezkoa da Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuaren aurrekontu-kontsignazioak egokitzea Garesko Udalak sustatu duen “Gares Energia” trantsizio energetikorako proiektu aitzindaria finantzatzeko beharrei aurre egiteko.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikulua ezartzen du ezen, hurrengo ekitaldira arte atzeratu ezin daitekeen gasturen bat aurrekontu indarduna-

ren kargura egin behar bada eta krediturik ez badago edo kontsignatutakoa aski ez bada, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, kreditu berezi bat emateko foru lege proiektu bat bidaliko diola Nafarroako Parlamentuari.

Era berean, foru lege honek, partida izenduna sortuz, Garesko Udalari zuzeneko dirulaguntza bat ematea ahalbidetzen du, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 17.2.a) artikuluan xedatutakoarekin bat.

**1. artikulua.** Kreditu berezi bat ematea.

320.000 euroko kreditu bat ematen da Garesko Udalak sustatu duen “Gares Energia” trantsizio energetikorako proiektu aitzindaria finantzatzeko beharrei aurre egiteko.

Kreditua aurrekontuko partida honi aplikatuko zaio: 820001 82200 7609 425210 partida, Garesko Udala. “Gares Energia” proiektua: instalazio fotovoltaikoa.

**2. artikulua.** Kreditu bereziaren finantzaketa.

Kreditu berezia 320.000 eurokoa izanen da, eta partida honen kargura finantzatuko da: 820001 82200 7609 425206 (E) Transferentzia Garesko Udalari. Ermineta minizentral hidroelektrikoa eta horren inguruak leheneratzea.

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Hezkuntzako kontseilaria premiatzen du Nafarroako ikastetxeetan erabiltzen ari diren testuen azterketa osoa egin dezan.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2019ko azaroaren 14an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Hezkuntzako kontseilaria premiatzen du Nafarroako ikastetxeetan erabiltzen ari diren testuen azterketa osoa egin dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Hezkuntzako kontseilaria premiatzen du Nafarroako ikastetxeetan erabiltzen ari diren testuen azterketa osoa egin dezan honako arlo, etapa eta ereduetan:

- D ereduko ikastetxe publikoetan eta itunduetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan 'Geografia eta Historia' eta 'Euskal Hizkuntza eta Literatura' ikasgaietan erabiltzen diren euskarazko testulibu-

ruak (24/2015 Foru Dekretua, apirilaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzen curriculumazartzen duena).

- D ereduko ikastetxe publikoetan eta itunduetan Lehen Hezkuntzan 'Gizarte Zientziak' eta 'Euskal Hizkuntza eta Literatura' ikasgaietan erabiltzen diren euskarazko testuliburuak (60/2014 Foru Dekretua, uztailaren 16koa, Nafarroako Foru Komunitatean Lehen Hezkuntzako curriculumazartzen duena).

Azterketa honen helburua da egiaztatzea ea testu horiek Nafarroako curriculumari eta Foru Erkidegoaren errealitate instituzionalari egokitzen zaizkien".

Iruñean, 2019ko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Elkarrizketa Sozialaren Kontseilua lehenbailehen dei dezan.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2019ko azaroaren 14an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Elkarrizketa Sozialaren Kontseilua lehenbailehen dei dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Elkarrizketa Sozialaren Kontseilua lehenbailehen dei dezan.

2. Etorkizuneko Nafarroako enplegu plana erakunde sindikalekin eta enpresa-erakundeekin adostu dezan.

3. Etorkizuneko Nafarroako enplegu plana gehienez ere urtebeteko epean onets dezan, Nafarroako Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluaren baitan".

Iruñean, 2019ko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Jota Nafarroako ondare immaterialeko kultur intereseko ondasun deklaratu dezan.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2019ko azaroaren 14an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Jota Nafarroako ondare immaterialeko kultur intereseko ondasun deklaratu dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Behar diren erabakiak har ditzan Nafarroako Jota, bere adierazpide guztietan, Nafarroako ondare immaterialeko kultur intereseko ondasun deklaratu dadin.

2. Nafarroako Jotaren Artxibategi Musikal eta Dokumental eta Interpretazio-zentro bat Tafallako Errekoletoen komentu ohian kokatu dezan, Tafallako Udalarekin lankidetzan eta kasuko hitzarmena sinaturik".

Iruñean, 2019ko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua bil dezan, Enplegu Plana taxutzeko bide-orria lehenbailehen berrikusteko eta horri berriz ekiteko.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2019ko azaroaren 14an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua bil dezan, Enplegu Plana taxutzeko bide-orria lehenbailehen berrikusteko eta horri berriz ekiteko".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko lehendakaria premiatzen du Nafarroako Elkarrizketa Sozialerako Kontseilurako deialdia egin dezan hilabeteko epean, berriro heltzearen, berrikusiz, Kontseiluko Batzorde Iraunkorrak 2017ko urtarrilaren 25ean onetsitako ibilbide-orriari, zeina enplegu-plan bat prestatzekoa baita".

Iruñean, 2019ko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Noain-Iruñeko aireportuko hall nagusian Virgilio Leret zenaren omenezko eta errekonozimendurako monolito eta informazio-plaka bat para ditzan, Nafarroako Gobernuarekin lankidetzan.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2019ko azaroaren 14an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Noain-Iruñeko aireportuko hall nagusian Virgilio Leret zenaren omenezko eta errekonozimendurako monolito eta informazio-plaka bat para ditzan, Nafarroako Gobernuarekin lankidetzan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Noain-Iruñeko aireportuko hall nagusian Virgilio Leret zenaren omenezko eta errekonozimendurako monolito eta informazio-plaka bat para ditzan, Nafarroako Gobernuarekin lankidetzan".

Iruñean, 2019ko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plan bat taxutu dezan Nafarroako sare publikoko ikastetxe guztiek izan dezaten estalgune bat beren patioetan.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2019ko azaroaren 14an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plan bat taxutu dezan Nafarroako sare publikoko ikastetxe guztiek izan dezaten estalgune bat beren patioetan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du plan bat taxutu dezan Hezkun-

tza Departamentuaren bidez, Nafarroako sare publikoko ikastetxe guztiek bi urteko epean estalgune bat izan dezaten beren patioetan.

Ahal den neurrian, estalki berriak instalatzen direla baliatuta, autokontsumorako instalazioak ere paratuko dira, 2018an Iruñeko Udalak hasitako Ikastetxe Fotovoltaikoen Sarea Foru Komunitate osora hedatze aldera, Doña Mayor de Navarra eta Bernat Etxepare ikastetxeetan eta Txantreako Liburutegi Publikoan egin den bezala”.

Iruñean, 2019ko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias



